



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Batzordea: Tokiko Gobernu Batzarra

Bilera-zenbakia: 2019ICGO0012

Eguna: 2019-11-26

Ordua: 18:00 – 18:20

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa	Astigarragako EH BILDU
- Aintzane Barandiaran Ezponda.....	Astigarragako EH BILDU
- Andoni Gartzia Arruabarrena.....	Astigarragako EH BILDU
- Nerea Zusberro Alberro.....	Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo.....	Udal-talde Sozialista

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

Kontxi Urdampilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2019ko urriaren 29ko aktaren onarpena.	1.	Aprobación del acta de 29 de octubre de 2019.
Udaltzaingoaren agente lehenaren plaza bat jabetzan hornitzeko, barne sustapen eta lehiaketa-oposizio bidez, deialdia.	2.	Convocatoria para la provisión en propiedad, mediante promoción interna y concurso-oposición, de una plaza de agente primero de la Policía Local.
HAPOko EUU2.6 "Pagoaga"ko hiri-antolamenduko plan berezia	3.	Plan Especial De Ordenación Urbana de la U.E.U 2.6 "Pagoaga" del P.G.O.U
Kontratazio-espeditatea: Arrobitxulo eta Santio zeharra arteko linea elektrikoarentzat eta telekomunikazioetako linearentzat obra zibila.	4.	Expediente de contratación: obra civil para líneas eléctricas y telecomunicaciones entre Arrobitxulo y Santio zeharra.
Lanertzeko enpresa bat kontratu erreserbatuaren bidez batera kontratatzeko lankidetzaz-hitzarmena	5.	Convenio de colaboración para la contratación conjunta de una empresa de inserción a través de la figura del contrato reservado
Gipuzkoako Mendizale Federazioarekiko konpromisoa mendi ibilbide homologatuen	6.	Compromiso con la Federación Gipuzkoana de Montaña para el mantenimiento de los



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

mantentze-lanetarako.		senderos homologados.
Astigarragako gazte plana 2019-2023	7.	Plan Joven de Astigarraga 2019-2023
Astigarragako III berdintasun plana	8.	III Plan de Igualdad de Astigarraga
Informazio, galdera eta eskariak.	9.	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2019ko urriaren 29ko aktaren onarpena.

Mikel zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

1.- Aprobación del acta de 29 de octubre de 2019.

El concejal Mikel se ha abstenido por no estar presente en la reunión anterior, el resto, en cambio, vota a favor, por lo que se aprueba el acta.

2.- Udaltzaingoaren agente lehenaren plaza bat jabetzan hornitzeko, barne sustapen eta lehiaketa-oposizio bidez, deialdia.

Alkateak azaroaren 22koa 1363/2019 Dekretuaren berri eman du, udaltzaingoaren agente lehenaren plaza bat barne sustapen bidez betetzeko hautaketa-prozesua hutsik uzteari buruzkoa; eta adierazi du plaza txanda librez hornitzeko oinarriak prestatzen ari direla.

2.- Convocatoria para la provisión en propiedad, mediante promoción interna y concurso-oposición, de una plaza de agente primero de la Policía Local.

El alcalde ha dado cuenta del Decreto 1363/2019, de 22 de noviembre, por el que se declara desierto el proceso selectivo para la provisión por promoción interna de una plaza de Agente Primero de la Policía Local, y ha señalado que se están preparando las bases para proveer la plaza por turno libre.

3.- HAPOko EUU2.6 "Pagoaga"ko hiri-antolamenduko plan berezia

Alkateak adierazi erabaki duela gaia ez aztertzea eta gai zerrendatik kentzea.

Berak eta Andoni zinegotziak azaldu dute egokiago ikusten dutela onarpen baldintzatua eman beharrean, Goizuetako Etxeak S.Lek aurkeztea dokumentu berri bat txosten tekniko eta juridikoan eskatzen diren aldaketekin, eta agiri berri hori izapidetzea

Gainerako bertaratuek begi onez ikusi dute alkatetzaren erabakia.

3.- Plan Especial De Ordenación Urbana de la U.E.U 2.6 "Pagoaga" del P.G.O.U

El Alcalde manifiesta su decisión de no analizar el tema y retirarlo del orden del día.

El alcalde y el concejal Andoni explican que en lugar de dar una aprobación condicionada, consideran más adecuado que Goizuetako Etxeak SL presente un nuevo documento con las modificaciones requeridas en los informes técnico y jurídico y que se tramite el nuevo documento

El resto de asistentes ven con buenos ojos la decisión de alcaldía.

4.- Kontratazio-espeditzea: Arroitxulo eta Santio zeharra arteko linea elektrikoarentzat

4.- Expediente de contratación: obra civil para líneas eléctricas y telecomunicaciones



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

eta telekomunikazioetako linearentzat obra zibila.

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Obra-kontratu honetarako prestatu diren baldintza administratiboak onartzea.*

Bigarrena.- *Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.*

Alkateak azaldu du Santio zeharreko 5-7 zenbakiko bizilagunekin bilera bat egin dutela (kanalizazioaren zati bat lursailetatik pasatzen delako), baina ez dutela arazorik jarri obra egiteko. Bestalde, adierazi du asmoa dela obra-kontratua urtarrilaren amaiera aldera esleitzea, eta obrak martxoaren hasiera aldera hastea.

*Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu da.***

5.- Laneratzeko enpresa bat kontratu erreserbatuaren bidez batera kontratatzeko lankidetzaren hitzarmena

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten udalerrien arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, laneratzeko enpresa bat kontratu erreserbatuaren bidez batera kontratatzeko.*

Bigarrena.- *Alkateari baimena ematea hitzarmena eta hitzarmena garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.*

Alkateak azaldu du orain arte gaia kontratu txikien bidez bideratzen zela, baina egokiago ikusi dela lizitazio bat egitea, eta udal bakoitzak berea egin beharrean, bakarra egingo dela eta gero udal bakoitzak kontratua sinatu beharko

entre Arrobitxulo y Santio zeharra.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- *Aprobar el pliego de condiciones administrativas preparadas para el presente contrato de obras.*

Segundo.- *Aprobar el expediente de contratación y dar inicio al procedimiento de adjudicación.*

El alcalde explica que han mantenido una reunión con los vecinos de Santio zeharra 5-7 (dado que parte del ramal pasa por sus terrenos) pero que no han puesto problemas a que se ejecute la obra. Por otro lado señala, que la intención es adjudicar las obras hacia finales de enero y que las obras comiencen hacia principios de marzo.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

5.- Convenio de colaboración para la contratación conjunta de una empresa de inserción a través de la figura del contrato reservado

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- *Aprobar el Convenio de colaboración entre los municipios que forman la comarca de Beterri-Buruntza para la contratación conjunta de una empresa de inserción a través de la figura del contrato reservado.*

Segundo.- *Autorizar al alcalde a la firma del convenio y de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar el mismo.*

El Alcalde explica que hasta ahora el tema se tramitaba a través de los contratos menores, pero se ha visto más adecuado hacer una licitación y que en vez de que cada ayuntamiento haga la suya, se hará una única y luego cada



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

duela esleipendunarekin.

Mikel zinegotziak galdetu du zergatik ez diren atxikitu Usurbil eta Lasarte-Oriako udalak. Alkateak azaldu dio kontratu honekin brigadalanak egingo direla (arekak edo kunetak garbitu, margoketa lanak egin...) eta lehendabizikoak brigada zerbitzu garrantzitsua duenez, ez zaiola interesatzen. Bigarren udaletxeari dagokionez, berriz, horrela erabaki dutela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

6.- Gipuzkoako Mendizale Federazioarekiko konpromisoa mendi ibilbide homologatuen mantentze-lanetarako.

Alkateak kirola, jarduera fisikoa eta gazteria batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehen.- Mendi ibilbide homologatuen mantentze-lanerako konpromisoa hartzea.

Bigarrena.- Alkateari ibilbide homologatuen mantentze-lanerako konpromisoa sinatzeko ahalmena ematea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

7.- Astigarragako gazte plana 2019-2023

Alkateak kirola, jarduera fisikoa eta gazteria batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehen.- Astigarragako Gazte Plana (2019-2023) onartzea.

~~Alkateak azaldu du beharrak aztertzeko 2018. urtean diagnostikoa egin zela, eta horren harrira plana prestatu dela, 13 ardatza dauzkana.~~

uno deberá firmar el contrato con el adjudicatario.

El concejal Mikel pregunta por qué no se han adherido los ayuntamientos de Usurbil y Lasarte-Oria. El alcalde le informa que con este contrato se van a realizar labores de brigada (limpieza de cunetas, trabajos de pintura...) y que como la primera tiene un servicio de brigada importante, no le interesa; y que el segundo ha decidido no entrar.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

6.- Compromiso con la Federación Gipuzkoana de Montaña para el mantenimiento de los senderos homologados.

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión dedeporte, actividad física y juventud :

Primero.- Adquirir el compromiso de mantenimiento de los senderos homologados.

Segundo.- Autorizar al Alcalde a la firma del compromiso de mantenimiento de senderos.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

7.- Plan Joven de Astigarraga 2019-2023

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión dedeporte, actividad física y juventud :

Primero.- Aprobar el Plan Joven de Astigarraga (2019-2023)

El alcalde expone que en el año 2018 se realizó un diagnóstico para analizar las necesidades, del que se ha elaborado un plan que consta de 13



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

ejes.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

8.- Astigarragako III berdintasun plana

Alkateak plana aurkeztu du eta adierazi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak 15.4 artikuluan adierazten duen txostena eskatu zaiola Emakunderi (Emakumearen Euskal Erakundeari), eta hori jasotzean aurkeztuko zaiola tokikoari plana onartzea.

8.- III Plan de Igualdad de Astigarraga

El alcalde ha presentado el plan y señalado que se ha solicitado a Emakunde (Instituto Vasco de la Mujer) el informe que exige el artículo 15.5 de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres; y que una vez se cuenta con el informe se solicitará, a la junta de gobierno, su aprobación.

9.- Informazio, galdera eta eskariak.

Nerea zinegotziak adierazi du badakiela ez dela horretarako lekua, baina ezin izan zuela bozeramaile batzordera joan eta alkateari galdetu dio EHBildu eta EAJ-PNV taldeek Boliviako egoeraren inguruan aurkeztu dituzten bi mozioekin bateratu bat egiteko aukera dagoen.

Alkateak erantzun dio hobe ikusten duela beti ere mozio bateratuak onartzea.

Mikel zinegotziak gauza bera adierazi du, gaineratuz estatu golpea gaitzetsi behar dela, EHBilduren testuan egiten den moduan, eta baita hauteskunde berria egin daitezen eskatu, EAJ-PNVren testuan esaten den moduan.

9.- Información, ruegos y preguntas.

La concejala Nerea señala que sabe que no es el lugar para ello, pero que no pudo acudir a la junta de portavoces y le pregunta al alcalde si existe la posibilidad de hacer una moción unificada de las dos presentadas por los grupos EHBildu y EAJ-PNV sobre la situación de Bolivia.

El Sr. Alcalde le contesta que le parece más apropiado que se aprueben mociones conjuntas.

El concejal Mikel manifiesta lo mismo, añadiendo que hay que condenar el golpe de Estado, tal y como se hace en el texto de EHBildu, así como pedir la celebración de nuevas elecciones, tal y como se exige en el texto de EAJ-PNV

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2019ko azaroaren 26an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko udal-idazkaria